

 <p>PASAIKO UDALA</p> <p>GIZA BALIABIDEAK</p>	Espediente zk.: N.º expediente: 2020WKOM0143	Espediente moldagarria Expediente adaptable
	Sarrera-erregistroa: Registro de entrada:	- 000000
	Titularra: / Titular:	Pasaiaiko Udala
	Ordezkarria: / Representante:	
	Gaia: / Asunto: Tratamendu jardueren erregistroaren onarpena / Aprobación del Registro de Actividades de Tratamiento	

EBAZPENA

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 30. artikuluan eta Datu Pertsonalak Babestari eta Eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 31. artikuluan xedatutakoa betez, Pasaiaiko Udalak, herritarrekiko harremanetan datu pertsonalak tratatzeko arduraduna den aldetik, «*Datuen Babesari eta Tratamendu Jardueren Erregistroari buruzko Oinarrizko Informazioa*» izeneko dokumentua egin behar du, Udalarena eta bere erakunde autonomoena. Pasaiaiko Udal Euskaltea eta Pasaia Musikal.

Horri dagokionez, gogorazi behar da 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa (DBEO), aplikatzean, eta haren zehaztapenak behar bezala betetzen direla zaintze aldera, Datuak Babesteko Ordezkarriarena (DBO) dela sistemaren konfigurazio berriaren funtsezko figuretako bat. Horren eginkizuna da jarraibideak ematea, neurri egokiak aplikatzeko eta tratamenduaren arduradunak horiek betetzen dituela frogatzeko.

Zehazki, toki-erakundearen esparruan, DBO izendatzea nahitaezkoa da, DBEOren 37.1.a artikuluan xedatutakoarekin bat. Bada, kontuan hartuta Foru Kontratazio Zentralaren esparru-akordioa, datu pertsonalen babesaren eta informazioaren segurtasunaren arloko egokitzapen-zerbitzuari buruzkoa, Pasaiaiko Udala zerbitzu horri atxikita baitago eta ALTIA CONSULTORES, S.A.ri esleitura baitago, Alkatetzaren 2020ko urtarrilaren 15eko 2020/0067 Ebazpenaren bidez, ALTIA CONSULTORES, S.A. DBO gisa izendatzea erabaki zen. Gauzak horrela, aipatutako ordezkarriaren argibideei jarraituz osatu da «*Datuen Babesari eta Tratamendu Jardueren Erregistroari buruzko Oinarrizko Informazioa*»

RESOLUCIÓN

En cumplimiento de lo dispuesto por el artículo 30 del Reglamento General de Protección de datos y el artículo 31 de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, el Ayuntamiento de Pasaia, como Responsable de Tratamiento de datos personales en su relación con la ciudadanía, debe elaborar el documento denominado «*Información Básica sobre Protección de Datos y Registro de Actividades de Tratamiento*», del Ayuntamiento y sus organismos autónomos, Pasaiaiko Udal Euskaltea y Pasaia Musikal.

En relación a ello, cabe recordar que ante la aplicación del Reglamento (UE) 2016/679, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos (RGPD), y con el fin de velar por el correcto cumplimiento de sus determinaciones, una de las figuras claves de la nueva configuración del sistema es la del Delegado de Protección de Datos (DPD). Su función es la de dar indicaciones para la aplicación de medidas oportunas y para demostrar el cumplimiento por parte del responsable o del encargado del tratamiento.

Concretamente en el ámbito de las entidades locales, la designación del DPDes obligatoria al amparo de lo dispuesto en el art. 37.1.a del RGPD. Pues bien, teniendo en cuenta el acuerdo marco de la Central de Contratación Foral, relativo al servicio de adecuación en materia de protección de datos personales y seguridad de la información, al que está adherida el Ayuntamiento de Pasaia y que está adjudicado a ALTIA CONSULTORES, S.A., mediante resolución de alcaldía 2020/0067 de 15 de enero de 2020 se acordó designar a ALTIA CONSULTORES, S.A. como DPD. Así las cosas, se ha elaborado el documento denominado «*Información Básica sobre Protección de Datos y Registro de Actividades*

deritzon dokumentua.

de Tratamiento» siguiendo las indicaciones del delegado mencionado.

Aurreko guztia kontuan izanik, alkate naizen honek

Que a la vista de todo ello, en calidad de alcaldesa,

EBAZTEN DUT

RESUELVO

Lehena. - Pasaia Udalaren eta bere erakunde autonomoen «*Datuen Babesari eta Tratamendu Jardueren Erregistroari buruzko Oinarritzko Informazioa*» dokumentua onartzea, ebazpen honi atxiki zaiona.

Primera.- Aprobar el documento «*Información Básica sobre Protección de Datos y Registro de Actividades de Tratamiento*» del Ayuntamiento de Pasaia y sus organismos autónomos, el cual se adjunta a la resolución.

Bigarrena. - Dokumentu hori udalaren web orrian (<https://www.pasaia.eus/es/LOPD>) bitarteko elektronikoen bidez modu eskuragarrian argitaratzeko agintzea.

Segunda.- Ordenar su publicación de manera accesible por medios electrónicos en la página web municipal (www.pasaia.eus/es/LOPD).

Une bakoitzean web orrian argitaratuta dagoen dokumentua izango da uneoro indarrean dagoena.

El documento vigente será, en todo momento, el que se encuentre publicado en la página web municipal.

Hirugarrena. - Udal sailtako teknikari arduradunei ahalmena ematea eta agintzea, beharrezko aldaketa eta eguneratzeak bultzatu ditzaten; dokumentu horrek beti eguneratuta egon behar baitu.

Tercera.- Facultar y ordenar a los/las responsables técnicos de las diferentes áreas para que promuevan cuantas modificaciones y actualizaciones sean necesarias, dada la necesidad de mantener el citado documento permanentemente actualizado.

Pasaia,

Izaskun Gomez Cermeño
ALKATEA / LA ALCALDESA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2020WKOM0143-Ebazpena/Resolución